

Trafiko arazoak Ibaetan

Errotaburuko glorietara eraikitzeko lanak hasiak dira eta ondorioz, egunotan auto pilaketak izan dira, Ibaetan batik bat, baina baita A organo ere. Zarautz hiribideko zati bat itxi egin da eta honek ondorioak izan ditu Donostiako sarreretan, bai saihesbidean, bai N-1 eta A-8 errepideetan. Aipatutako zatia sei astez egongo da itxia, apirila bitartean, eta beraz, datozen asteotan ere trafiko arazoak sor litezke Donostiako sarreretan.

Ibilgailu ilarak asteartean hasi ziren. Zarautz hiribideko zati bat autoei itxi zitzaion, Tolosa hiribidearekin eta Amara-Ibaeta errepidearekin lotuta dagoen zatia alegia, eta neurriak eragin nabarmena izan zuen saihesbidetik eta N-1etik Donostiara sartu nahi zuten autoen artean. Zarautz hiribidetik barrena Amara-Ibaetara edo Antiguara joan nahi zuten autook Ibaetako glorietan eman behar izan zuten buelta. Hemen ere ibilgailuak pilatu ziren eta

beraz, arazoak sortu ziren A-8tik zetozenen artean. Zenbaitetan sei kilometroko auto ilarak ere izan ziren.

Esan bezala, arazook sei aste iraun ditzakete. Gipuzkoako Foru Aldundiko Garraio eta Errepide Sailak adierazi duenez, ordurako Zarautz hiribidetik sartzen diren kotxeek beste bide bat izango dute eta zazpi hilabetez bide horixe hartu beharko dute.

Errotaburuko glorietara giltzarri izango omen da



Amaigabeko ika-mika

Audit Akularreko proiektua zela eta, PSE-EE eta PP udal gobernuki-deen artean sortutako liskarra albiste izan genuen joan den astean. Aste honetan ere bi alderdi politikoek gaiari heldu eta salaketa gogorak egin dizkiote elkarri. Hortaz, ika-mika ez da baretu eta bi alderdien arteko gobernu hitzarmena oraindik ere arriskuan dagoela dirudi.

Odon Elorza alkateak, joan den asteartean, otsailak 26, *"traizioa"* egitea leporatu zien popularrei. Izan ere, Elorzak dioenez, gobernu itunean Audit Akularreko etxebizitzak aurrera ateratzea jaso ta dago. *"PPk ez du bere mesfidantzaren arrazoiaren berri eman eta kalte egiten du, kalte egiteagatik"*. Alkateak gaineratu duenez, *"PP bere borondatez ateratzen ari da Udal Gobernuaren esparrutik"*. Dena dela, Elorzak egungo gobernuari eutsiko diola adierazi du, baina *"duintasuna galdu gabe"*.

Maria San Gil PPko eledunak, bestalde, harrিতa dagoela esan zuen, *"alkateak ez baitzuen inongo ezadostasunik erakutsi"*, asteartean bertan bi alderdiek egindako bileran. San Gilen esanetan, PP Audit Akularren aldekoa da. Hala ere, egitasmoari ezezkoa emateko bi arrazoi eman zituen: *"informazio falta"*, batetik, eta adostasuna lortzeko alkateak interes gutxi azaldu duela, bestetik.

Liskarra Udal Gobernu Batzordeak Audit Akularreko egitasmoaz eztabaidatzeko joan den astean egindako bileran piztu zen. PSE-EEK egungo Plan Orokorra aldatu nahi du Audit Akularren 3.000 etxebizitzatza (haietatik 2.500 inguru babes ofizialekoak) egiteko. PPk, berriz, eztabaida Plan Orokorra osorik berraztertu arte atzeratu nahi du. Ondorioz, proiektuak ezin du aurrera egin, oposizioa ere aurkakoa baita. Udalbatzarrak datorren asteartean, martxoak 5, hartu beharko du Audit Akularri buruzko erabakia.

Hitz eta pitz

Ramon Lazkano protagonista

Ramon Lazkano musika konpositorea protagonista izan dugu azken egunotan hainbat komunikabideetan. Otsailaren 21eko Euskaldunon Egunkarian, esaterako, elkarriketa egin zioten Parisen bizi den musikagile donostiarrari.

Euskal musikari dagokionez, *nire belaunaldiko musikariak jo eta ke ari dira lanean. Horiei esker, beharbada, sortuko da Euskal Herriak behar duen azpiegitura*, dio Lazkanok. Musikagileak, bestalde, argi eta garbi hitz egin zuen elkarriketan: *musika ogibide ez banu, agian ez nuen sekula obra bat amaituko*. Hori duk, hori, garbi hitz egitea, Ramon!

